

Irrintzi bat entzun da Europa zaharrear: ‘Oxi’

Greziako herritarrek gehiengo handiz ezezkoa eman ondoren herrialdearen zor erraldoia kudeatzeko Troikak agindutako planari, ur nahasietan murgildu da Europa osoa. Jokoan daude –garrantzi geopolitiko berezia daukan Greziak euroan eta Europar Batasunean jarraitzeaz gain– austeritate neoliberala eta Europaren barne egituraketa gardenagoa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |



BUSINESS INSIDER

Gazte eta zaharrak nahasian Atenasen ezezkoaren aldeko manifestazioan. Bozketa aurreko ikerketek iragartzen zutena baino askoz alde handiagoz galdu du Europako agintek gomendatzen zuten baiezkoak.

LURRIKARA GREZIAN, tsunamia Europan. Europako Batzordeari, Europako Banku Zentralari, Nazioarteko Diru Funtzari eta Euro-taldeari *Oxi* esan diote gehiengo handiz greziarrek eta Europa gazterik

zaharkituaren zureriaren habe nagusiak printzatu dira Grezian.

2008ko krisitzarraren ondoren austeritatea errezetatu zuen Europan agintzen duen Troikak. Espainiak obeditu du. Irlandak obeditu

du. Italiak burua makurtu du. Greziak ezetz esan du, bost urtetan erremedioaren kalteak nozitu ondoren.

Enric Juliana kazetari katalanak aurretik abisatua zuen. “Grezian baiezkoak irabazten badu, benetako

ordena bortizki berresten ikusiko dugu. (...) Europako Batzordearen egoitza den Bruselasko Berlaymont eraikinaren goi-goian iragarki argidun bat piztuko da dioena: *‘No se puede’*. Ezezkoak irabaziz gero, sare sozialek oihukatuko dute *‘Sí se puede’*, negoziaketak norabide zalantzatsua goa hartuko du eta nabarmenagoak izango dira Barack Obamak, Atenas Moskura hurbiltzeko tentaldietatik urruntzarren, egindako presioak. *Oxi* agertokian, Syriza bihurtuko da inperio berriaren josturak nabarmenki aldatzeko ametsa duten ezker berrien erreferente garbia”.

Eta hona gu, europarrok, *Oxi* agertokian. Beldurraren kanpainak ez du funtzionatu. Ortodoxia neoliberalaren formula guztiak irentsirik herrialdea txirotasunera erortzen ikusita, miseriaren erdian bizilagunek elkarri lagunduz bizirauten bost urtez derrigor entrenatuta, azken asteko *corralito*-ak gehiago balio izan du greziarrak haserretzeko, beldurtzeko baino.

Ezer ez da izango berdin Europan Greziako erreferendumaren ondoren. 2008ko krisi handia eta Europaren egituraketa neoliberalaren europarren interesguneetan kokatu dira. “Murrizketa gehiago ez, erreforma errealak bai, hori bozkatu dute greziarrek” esan zuen igandean Europako ezkerren izar nagusietakoa bihurtu den Yanis Varufakisek.

Denok ikasi dugu asko kanpaina honetan. Nagusiki, Stiglitz eta Krugman bezalako ekonomialari ortodoxoek ere argiki salatua: Europako banku pribatu handiak salbatu ditugula, horiek Greziako politikariak bultzatu ostean herrialdea zorretan leporaino sartzera, kobratzeko estutasunak iritsi zirenean arrapaladan lortu dutela beren sosa segurtatu eta kobratu ezineko mailegu itzelak zor publiko bihurtzea.

Oraindik pisu handia daukan arren establishmentak zabaldu duen “alemanak langile, greziarrak alfer” irudi sinpleak, gero eta europar gehiago jabetu dira greziarrez gain kontinente osoa bizi dela banku handien eta horiekin ate birakarien bidez lotutako politikarien erabaki okerren gatibu, diru bero errazeko urteetako astakerien pagatzaile.

Thomas Piketty: «Europako zor publikoa berregituratzeko biltzarra behar dugu»

SORGIN HASI-BERRIEN gisan jokatzen duten europar kontserbadore hauei ez badie François Hollandek Frantziaren betoa ezartzen, kanporatzen badute Grezia era bortitz honetan, haren ekonomia itoaraziz, honek Grezian Europarekiko ekarriko duen gorrotoa ezin pentsatuzkoa izanen da. Tsipras agintetik kentzen baldin badute, eta Grezia Errusiara hurbiltzen baldin bada, ultra-eskuindarrek botoak eta jarlekuak irabazten dituztenean Grezian eta berdin Frantzian... Zeren eta herrialde bat eurotik kanporatuko dutenean, eurotik irteteko diskurtso guztiak indartuko dira. Sorgin izan nahi duten horiek uste dute herrialde oso bat bezatu daitekeela austeritatez, eurotik kanporatuz... Egoera izugarri larria da.

Europa krisitik ateratzeko bi gauza behar dira. Europako zorrari buruzko biltzar handi bat. Europa osoko zorra berregituratu beharra dago, ez bakarrik Grezian, baita Portugalena ere, Italiarena... BPGaren %60 gainditzen duen zor guztia funts komun batean jarri eta berregituratu beharra dago. XX. mendean bertan bai Alemaniak eta bai Frantziak eduki dituzte BPGaren %200 baino gehiagoko zorpe-zeak eta horiek berregituratzeko modua egon da. Ez dago alterna-

tiba bakar bat, badira bide bat baino gehiago, motelak eta azkarrrak. Zorra kitatuz galtzen dena baino askoz gehiago irabazten baita kitatzearen ondorioz eragiten den hazkundearekin. Sei hila-bete galdu ditugu, zorraren berregituraketaz hitz egin ordez segituko dugu aurreko formula balio gabeekin itzuli-mitzuli?

Bigarrenik, eurogunearen lege-biltzar handi bat osatu. Bertara joan daitezela herrialde bakoitzeko legebiltzar bakoitzean hautatuko parlamentariak, biztanleen proportzioen arabera. Parlamentarien biltzar horrek finkatu behar ditu, zorraren berregituratzearen eta gertatu denaren argitzearen ondoren, aurrerako irizpideak: defizit publikoen helburu eta mugak, inbertsio publikoei dagozkienak, berregituratu zorraren ordainketaren erritmoak...

Moneta komuna daukagunez, horren gobernu demokratikoa behar dugu. Erabakiak demokraziaz eta egun argitan hartu. Ez, Greziarekiko negoziaketetan ikusi dugun bezala, horrelako iluntasun itzelarekin.

[*Thomas Piketty ekonomialariak Le Monde*’ren telebistarako Arnaud Leparmentier kazetariari uztailaren 2an emandako erantzunen zati hautatua]

Termopilak 2015

Katarsis giroan bititu ditu Greziak asteok. Panagiotis Grigoriou antropologoak Greziatik idatzi du bere blogean: “Gerra bat da hau, ziurre-

Alexis Tsiprasek erreferenduma irabazi osteko hitzaldian: “Denok dakigu soluzio errazik ez dagoela, baina soluzio justuak badaude”

nik azkenekoa demokrazien hilketa behin betikoa eta atzera bueltarik gabea gertatu aurretik. Greziarron borrokaren mamia da Europako demokrazien eta gizartearen hiltzailak neutralizatzea. (...) Etorkezuneko historiagileek aipatuko dute Alexis Tsipras politikari gazteak ongi asmatu zuela bere herriari benetako galdera aurkeztean, nahiz eta beranduegi eta ez osorik”.

Syriaz lortutako balentriak lileratu ditu ikuskatzaile epelenak ere. *The Guardian*ek John Hooperrek txiokatu zuen Atenastik, artean botoak kontatzen ari zirela, Ter-

Europar Batasunaren habeak zartatu dira Atenasen

EZ EGIN NEGAR Greziatik, egin negar Europar Batasunagatik. Europak aspaldiko mendeetan eduki duen egitura ekonomiko handiena barrutik sitsak janda dagoela ikusi da Grezian. Ez da, ordea, ekonomia kontu soila. Diseinu instituzional eta politiko osoa dago une honetan auzitan.

Zientio bat adituk esan du asteotan euroaren sorrera huts egitea izan zela... ondoren gehitzeko kontua ez dela txanpon bakarrean atzera egitea. Beranduegi da horretarako. Grezia eurotik kanporatzeko mehatxu egiten duen Wolfgang Schäuble gorrotatuari Frantziatik Emmanuel Macron ministroak erantzun dio Twitterrez bozketaren bezperan: “Ezezkoak irabaziko balu igandean Grezian, ez genuke tratatu beharko Versaillesko itunean bezala”. Alegia, kontuz 2015ean Grezia tratatzearekin I. Mundu Gerraren ostean Alemania bezala: hala nagusitu zen nazismoa...

Manuel Castells soziologoak idatzia du Greziaren eta EBren arteko gatazkaren oinarrian dagoela herritarren burujabetza galtzea. Syrizarri ez onartzean gaia Greziako legebiltzarrerara eramatea, Europako indar faktikoek oinperatu nahi zuten ez bakarrik nazioen burujabetza, herritarren burujabetza ere zanpatu nahi zuten. “Hau da, teknikoek erabakitzen dute zer mespretxatu. (..) Legitimitatea galdu duten politikarien lekua *teknodiktadura* batek hartzeko joera ikusten da”.

Baina urrunegi iritsi dira Europar Batasuna kudeatzen duten burokratak. Diseinu eta jokabide aldaketa ez da minik gabe gertatuko. Jacques Sapir ekonomialari frantses ezagunak esan du inor ez dela Bruselaren ausartzen esatera Europak ez duela funtzionatzen. “Greziko krisia ez da garrantzitsua herrialde horren



Jean Claude Juncker, Europako Batzordearen lehendakaria.

pisuagatik (eurogunearen BPGren %2) baizik eta Europa barrutik leherrarazten ari den krisi larria azalartzen duelako”.

Grezia, Snowdenek argitara atera dituen informazioak, Ukraina... krisi larriak, EBren gobernatzeko eraren arazo sakonak salatzen dituztenak. “Politika txarrak burutu ostean, horien eragin txarrek ez diete ondorioz ekartzen errudunei. Europar Batasunaren dimentsio bat hilda dago. Ez dakit EB osotasunetik zenbat salbatu ahalko den, baina hondoratzeko moduko prozesu kezkarri eta arriskutsua ari gara ikusten sistemaren muinean bertan”.

mopiletako guduaren *remake* baten usaina zegoela: “300 espartarrak armada pertsiarrari aurre egiten, baina Xerxesen papera Angela Merkelek eginez”. David gailendu Goliathi, esango zuen besteak. Baina hori igande gaua baino lehen zen.

Orain mahai gainean dago Greziaren zorra, zati handi bat bederen, barkatu beharra. Atenasko agintariek benetan nahi eta espero baldin bazuten 300.000 milioi euroz goitiko zorraren zati bat kitatua izatea, eta horretarako deliberatu badute NDFrena ez ordaintzea –lehenago Ekuadorrek edo Argentinak egin moduan–, orduan ondorio guztiekin ekin beharko diote gurutze-bide gogorrari. Inork ez zion esan Alexis Tsiprasi Grezia zorperera eraman

zuten oligarka eta politikariak –europarrak bezala greziarrak– bidera loreak eskainiz aterako zitzaizkionik.

Historiarako zizelkaturik utzi du Tsiprasek: “Denok dakigu soluzio errazik ez dagoela, baina soluzio justuak badaude”. Baina gudu epi-

Greziarrak gerrako ekonomian bizi dira hilabetetotan. Bestelako gerra odoltsuagoak sortzeko beldurragatik irtenbide burutsuak saiatu beharko lituzkete gure eliteek

koaren bizarrak eta eskuak kiskali behar izan ditu. Garaipenaren biharramunean Yanis Varufakis ministro-totemak bere lepoa eskaini die Europako aginte faktikoei.

Laster entzungo dira eroritako buru gehiagoren zaratak. Merkel beraren irudia oso ahulduta geratu da. *Der Spiegelek* uztailaren 3an analisi hau plazaratu du: “Angelaren errausak: honela huts egin die Merkelek Greziari eta Europari”.

Geopolitika karta baliagarria izango zaio Atenasi Europako Troikaren zepotik ihes egin nahi horretan. Funtsean, Moskuko gobernuarengana hurbiltzea. Ez da Errusia kristau ortodoxoa berdin ikusten berlingar luteranoen begietatik... edo gehiengo oraindik ortodoxoak diren greziarren begietatik.

Greziak garrantzia dauka OTANen eskema barruan. Noiz eta Errusiarekiko tentsioa handia denean oso nabarmen Ukrainako gatazkagatik, baina era lausoago batean OTANek biltzen duen eremuaren ekialde osoan. Turkia Siria eta Irakeko sute islamistan harrapatuak. Paradoxikoki, Barack Obamarengan solaskide adeitsuagoa aurkituko dute Syrizarako agintariek Europako buruetan baino, François Hollande bezalako sozialdemokratik barne.

Berriz hasteko aukera?

Syrizaren gobernuak sei hilabeteotan lortu du europarrei ahaztu araztea Greziak daukan barne mamu bortitz bat: ultraeskuin faxista. Sartu ote du Europak bere kalkuletan? Orain Syrizarak huts egiten badu Grezia putzu zulotik pixkanaka ateratzeko kudeaketan, mamurik beldurgarrienak daude ate gibelean agintea hartzeko prest. Italiak kanpo, Europako beste inork baino latzago pairatzen duten etorkinen krisiak ere jokatu du bere papera piztia beltza iratzartzen baldin bada.

Europar Batasunaren egituraketa eskasa agerian utzi du Greziako zorraren krisiak. Herritarren burujabetasunaren gainetik teknokraten agintea nagusitu dela. Berrikitan Manuel Castellsek “teknodiktadura” deitu zion. Yanis Varufakisek negoziaketaren zertzeladak kontatzean agerian utzi du kontinentearen buruzagitza ekonomikoa darman Eurotaldea formalki existitzen ez den eta paperean finkatutako araurik gabeko erakunde bat dela. *Oxi* eta gero, agendan dago Euro-



Atenasko karrikan txotxongiloekin ospatzen Troikarentzako ezezkoak irabazizana. Ezkerrean ezezkoa irudikatzen du Varufakisek. Eskuinean baiezkoa Wolfgang Schäuble Ekonomia ministro aleman greziarrek gorrotatuak.

par Batasuna goitik behera berrantolatu beharra.

Euroa, herrialde europarren zoritzel handiak, ekonomiaren gaineko kontrola, Eurotaldearen funtzionamendu iluna, krisia gainditzeko austeritatea, OTANen egitura militarra eta bizilaguna dugun Errusiarekiko harremana.... Agian lan handiegia elite alferregi batentzako?

Europako eliteek eduki baitezakete, biderik laburrena hartuz, Gre-

zia eurogunetik kanporatzeko tentazioa. Batik bat Alemanian sortu duten giroarekin, establishmentak negoziaketa berriei ekin eta Europako zorren kitatze handiak maharatzeko adorea beharko luke.

Greziarrak gerrako ekonomian bizi dira hilabeteotan. Bestelako gerra odoltsuagoak sortzeko beldurratik irtenbide burutsuak saiatu beharko lituzkete gure eliteek. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira